

BERRIGARA

38. zenbakia

JARDUN Elkarteak, Bergara

1996, ekainak 7

JESUS GARCIA
Giharren
indarra

Autopulmans Araba S.L.

Angiozar auzoa, 3 BERGARA

AUTOBUSAK

Telefonoa: 76 55 70

Era guztietako bidaietarako autobusak: sagardotegi, ezkontza, bodega, ikasketa bidaiak, despedida, lantegi, eskola...

ESKA EZAZUL AURREKONTUAIL



BERGARAKO OSASUN gida

■ ALBAITARIAK:

• ETXEBERRIA JULIO (GRANJAKO ANIMALIAK)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• ETXEBERRIA JULIO (DEBA GARAICO ALBAITARI OFIZIALA)	Mobila: 908 77 17 32	☎ 76 43 29
• IRASTORZA BENGEOA SABIN (GRANJAKO ANIMALIAK)	Iribar baserria ANTZUOLA	☎ 76 63 46
• NOGUEIRA HUMBERTO (BALDANA KLINIKA). Mobila: 908 87 68 47	Koldo Eleizalde, 28	☎ 76 27 97

■ ANALISI KLINIKOAK:

• LABORRA ISABEL	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
------------------	------------------	------------

■ BARNE MEDIKUNTZA:

• IRIGOYEN VICTOR	Oxirondo 4, 1. B	☎ 76 32 06
-------------------	------------------	------------

■ DENTISTAK:

• ASTIAZARAN SOLOZABAL	Iparragirre, 1 behea	☎ 76 27 95
• BERGARA HAGIN KLINIKA	Bidekurutzeta 6, 2	☎ 76 05 77
• GOROSABEL J. ALBERTO	Fraiskozuri, 5 behea	☎ 76 56 88
• IRIARTE IDOIA	Artekale 1, 1. C	☎ 76 01 65
• SUDUPE FELIPE	Matxiategi, 18 behea ezkerre	☎ 76 07 66
• GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M.	S. Arrieta 3, 2. B	☎ 76 38 54

■ FISIOTERAPEUTAK:

• ARZAK MIREN (REEDUCACION POSTURAL GLOBAL)	Masterreka, 7 4. C	☎ 76 43 71
---	--------------------	------------

■ GINEKOLOGOA:

• SERRANO DOKTOREA	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39
--------------------	---------------------	------------

■ MASAILARIAK:

• AGIRREZABAL JOSE JABIER	Boni Laskurain 1, 2. A	☎ 76 15 74
• AZPEITIA IRUNE	Agorrosingo igerilekuak	☎ 76 20 51
• CASANELLAS JABIER	Boni Laskurain 5, 2. E	☎ 76 03 78
• MARTINEZ LUIS JABIER	Masterreka 7, 3. A	☎ 76 51 18

■ MEDIKUNTZA OROKORRA:

• ARCINIEGA JULIO	Boni Laskurain 3, 1. B	☎ 76 37 50
• OXIRONDO KONTSULTATEGIA	Boni Laskurain 2, behea	☎ 76 20 50

■ PEDAGOGOAK:

• IZETA MARIBI (GABINETE PSIKOPEDAGOGIKOA: LOGOPEDIA, PSIKOMOTRIZITATEA)	Simon Arrieta 3, 2. E	☎ 76 26 42
--	-----------------------	------------

■ PODOLOGOAK:

• ALTUBE EDURNE	Simon Arrieta, 2	☎ 76 07 84
• AZPIAZU ARANTZAZU	Herri Lagunak, z/g.	☎ 76 41 32

■ PSIKIATRA:

• GALLASTEGI PABLO	San Martin Plaza 2, 1. ezkerre	☎ 76 26 64
--------------------	--------------------------------	------------

■ PSIKOLOGOAK:

• PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (LOGOPEDIA-FONIATRIA, PSIKOLOGIA, PSIKOMOTRIZITATEA)		☎ 76 14 80
• URKAREGI PAKITA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 53 13
• ZUBILLAGA, ZABALA MARISA (PSIKOLOGO KLINIKOA)		☎ 76 30 76
• FERNANDEZ J.R.	Ramon Maria Lili, 2	☎ 76 59 39

BERRIGARA JAUREGIA
20570 Bergara
76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

ARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkorobereibar

Ene Larrañaga

Maketazioa:

Eneko Azkarate

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Manipi Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkorobereibar

Alex Labaien

Komikiak:

Pitor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Eneko Azkarate

Portadako argazkia:

Juanma Argazkidenda

Banaketa:

Hantxangorri taldea

Tirada:

4000 ale.

Inprimategia:

Santu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

S 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako irazpenen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

RUFINA OLASAGASTI

Udaleko Kultur Jestorea

- San Martzial egunean kuadrilentzako mahaiak izango al dira aurten?

- Bai, aurten ere Udalak koadrilei mahaiak alokatuko dizkie eta astelehenetik aurrera izena emateko aukera izango da. Mahaiak hartu nahi dituztenei denboraz ibiltzea gomendatuko genieke, mahai kopurua mugatua denez, izena lehenengo ematen dutenek lehentasuna izango dutelako. Prezioei dagokienez, 8 lagunentzako mahai bakoitza (aulki eta guzti) 1.500 pezeta kostako da.

- Aurreko urteetan zenbat mahai alokatu ziren?

- 150 mahai inguru. Oñati eta Pasaiatik ekarri genituen. Aurten berriz



Oñatitik 105 mahai ekarriko dira.

- Programari dagokionez, nobedaderik ba al dago aurten?

- Ez da gauza berri askorik izango. Nobedadeen artean aurten XXV. urteurrena betetzen duen Alai taldeak bazkalostean kantaldia eskeiniko du eta erromeria, berriz, Maixa, Itziar eta Garbiñek eskainiko dute.

"Astelehenetik aurrera San Martzialerako mahaiak alokatu ahal izango dira"

I T U R R I O N E T I K

Bergara K.E.ko zuzendaritza 96-97 futbol denboraldia prestatzen hasi da

Bergara K.E.ko arduradunak futbol talde nagusien hurrengo denboraldia prestatzen ari dira dagoeneko. Zuzendaritzaren asmoa aurten preferente mailan ibilitako plantilla mantentzea izango da. Roberto Irazabal eta Joxu Arana baja izango dira, eta fitxaketei dagokienez, inguruko beste talde batzuetan jokatzeko ari diren bergararrak ekartzeko asmoa dago. Ia ziurtzat eman daiteke Xabi Arregi preferente taldearekin entrenatzen hasiko dela. Horrez gain, beste herriko jokalaririk batzuk fitxatzeko asmoa dago. Bestalde, ziuurren, Javier Iturbe izango da 2. errejional mailako taldeko entrenatzailea hurrengo denboraldian.

E S A N
D U T E

"Gehienetan, txapelketetara gauza hermetikoak bidaltzen ditut, koadroa nahiko bukatuta eta borobilduta dagoenean. Eta hori da prozesu baten bukaera, nahiz eta batzuetan oso sinpleak direla antzeman. Baina ni hasten naiz lanean eta irudiak, estrukturak jausten doaz, ideia batzuk hartzen, beste batzuk uzten... Sendotzeko bide hori erakutsi izan nahi dut. Zikinagoa izango da, baina polita ere bai ikusteko"

MANU MUNIATEGI
Margolaria
EGIN

"Hizkuntza berri bat ikastera joan eta beste herrialde batzuk ezagutzeko, ikasleek heldutasun bat hartzen dute, mentalitatea asko zabaltzen zaie beste jende bat ezagutzeko. Beste inguruetako ikasleekin bizitzeak zabalago eta tolerantetago egiten ditu"

MIREN ASPIAZU
Eas-Veleko
zuzendaria
EL DIARIO VASCO

**12 MONOS**

Ostirala: 22:30.
Larunbata: 17:00, 19:30, 22:30.
Igandea: 17:00, 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**EL DEMONIO VESTIDO DE AZUL**

Osteguna: 20:00.



▼▼ **Aritzeta abesbatzak** bi emanaldi eskeiniko ditu igandean. Goizeko 11etan, Imanol Urzelairen zuzendaritzapean, Mozarten *Misa Brevis* abestuko dute. Ordubatean, berriz, Toki-Ederren, Aspiazu, Morocoa, Elizalde, Lesbordes edo Faveroren piezak eskeiniko dituzte Izaskun Labaienen batutapean.

Zinea

▼▼ **Terry Gilliam** zuzendariak (*El rey pescador*) 2035 urtean girotu du azken filmea. Gizakiak lurpean bizi dira eta gertatutako katastrofearen zergatia ikertzeko *Colek* (**Bruce Willis**) iraganera egingo du bidaia, 1996 urtera hain zuzen ere. Erdi zoraturta dagoen *Jeffrey Goines* (**Brad Pitt**) eta *Kathryn Rally* (**Madeleine Stowe**) psikiatraren laguntzaz, 12 tximinoen irudiari esanahia topatu beharko diote...

▼▼ **Denzel Washington** aktoreak protagonizatutako filme hau joan zen Donostiako Zine Jaialdian aurkeztu zen eta kritikak harrera ona egin zion. 1948 urtean Los Angeles hiria hazten ari da baina *Easy Rawlinsek* (**Washington**) garai hobeak ezagutu ditu. *Daphne Monet* topatzeko enkargua onartu eta denetik tokatuko zaio...

Deiak

▼ **Mendi irteera.** Gorla Alpino eta Pol-Pol Mendizale Taldeak ekainaren 15 eta 16an Pirinioetara (Gavarnie-Bujaruelo) mendi irteera antolatu dute. Izen-ematea eta argibideak Pol-Polen.

▼ **Odol ateraldia** asteazkenean, ekainak 12, 18:30etan Semi-narioko baxuetan.

▼ **Xake** taldearen XXV. urteurrena ospatzeko erakusketa igandera arte Kultur Etxean.

▼ **Manu Muniategiren** margo erakusketa Gasteizeko CM2 erakusketa aretoan uztailearen 5era arte.

▼ **Aita Menni** ospitaleko arte erakusketan Juan Balentziagaren margo eta eskulturak, eta Arantzazu Aranzabalen zeramika lanak ikus daitezke San Juanak bitartean.

Ogia

▼ **Igandea 9:** Bolintxo.

FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 7:** Camacho.
- ▼ **Larunbata 8:** Puy.
- ▼ **Igandea 9:** Puy.
- ▼ **Astelehena 10:** Guallar.
- ▼ **Asteartea 11:** Estella.
- ▼ **Asteazkena 12:** Mozos.
- ▼ **Osteguna 13:** Camacho.

**ETXEPARE-BILINTX****LIBURUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 ☎ 76 40 50 BERGARA

Elosuko Otaba jaiak

Toki Ederren ere jaiak astebukaeran

Astebukaera honetan Toki Eder eta Elosuko Otaba jaiak ospatuko dira. Toki-Ederren, gaur arratsaldeko 7etan hasiko dira jaiak ohizko txupinazoa-rekin. Ordu erdi berandugo buruhaundi eta erraldioen kalejira izango da, eta zortzi t'erdietan, berri, poteo herrikoia. Gauean, 11etan, Luhartz taldeak alaitutako dantzaldia eta dantzaldia amaitutakoan berakatz-zopa banatuko da.

Larunbatean, goizeko 10etan, etxaflero jaurtike-ta egingo da eta jarraian futbito partiduak jokatuko dira. 11etan haurrentzako ginkana eta ordu batean poteoa dago iragarrita. Arratsaldeko 4retan Toki-Ederreko mus txapelketa azkarra jokatuko da (izenematea ordu erdi lehenago) eta ordu berean alebin eta gazte mailako pelota partiduak jokatuko dira. Kukainak izango dira 5etan, ondoren haurrentzako merienda, 7etan buruhaundi eta erraldioen kalejira, 8etan Musika Eskolako ikasleekin batera hurren tanborrada, eta, amaitzeko, 11etan, Trabukorekin dantzaldia.

Azkenik, igandean, Udal Txistulari Bandare-



Trabuko taldeak alaitutako dantzaldia zapatuan Toki Ederren.

kin diana 10etan; 12etan Aritzeta abesbatza eta Xamatx dantzataldearen emanaldia, ondoren salda eta txorizoa banatuko dira eta, bertan, bertsolari, trikitilari eta dantzariak izango dira; 12etan jubila-tuentzako luntxa, eta

14:30etan bertsolari eta trikitilariak alaitutako bazkari herrikoia.

Otaba jaiak

Elosun, bestalde, Otaba jaiak izango dira. Bihar, larunbata, 17:00etan,

Pelota txapelketako finalak jokatuko dira igande goizean Elosun

jaiari hasiera emango zaie eta, ondoren, txokolatada izango da Elosuko elkar-terera inguratzen diren guztientzat. Gauean, 10 t'erdietan, Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia egongo da.

Igandean, 11etan Meza Nagusia, ondoren pelota txapelketako finala eta arratsaldeko 5etan jaialdia. Bertan Elosuko Jose Luis Lete "Elosukorta" harrijasotzaile gazteak hartuko du parte eta ondoren Antonio Suares Bilboko Itsaslur Nazioarteko ferriako txapelkunak eta Juan Barrenetxea Osintxuko lehiaketako irabazleak bi motozerra marken arteko lehiaketa jokatuko dute (40 ebaketa bakoi-tzak). Egun guztian zehar eta gaueko erromerian Al-tuna ahizpak trikitiarekin arituko dira.

Bukatzeko, astelehe-nean, ordu batean, auzoko hildakoen omenezko meza nagusia, ondoren salda beroa Elosuko el-kartean, 3retan auzo baz-karia eta arratsaldean ume eta nagusientzako jolasak. Egun osoan zehar Laja eta Landakanda triki-tilariak izango dira eta, azkenik, gaueko 12etan zozketa dago iragarrita.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnoak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

Alcalatik

Alcala, 1996-5-20. Kaixo lagunok:

Zuengana zuzentzen naiz herriko festak direla eta. Baina tamalez azken egun hauetako gertakizunen berri eman beharrean aurkitzen naiz. Agian jakinean egongo zarete. Baina joan zen ostiralean, 6. moduluan dagoen Jorge Garcia Sertucha euskal preso politikoa jipoiu zuten gure gartzelero "jaun agurgarriek". Hori dela eta, aislamendu zeldetara eramazuten.

Protesta gisa, errekuentoei uko egiten hasi ginen. Giroa gu eta gartzeleroen artean tentsatzen hasi zen. Atzo, igandea, arratsaldeko lauretan jakinarazi ziguten 32. artikulua aplikatu zigutela. 32. artikulua honek dioenez, "arriskutsuak" omen gara eta ez gara hemengo regimena normalera adaptatzen, beraz, egun guztia ziega barruan pasa behar izaten dugu. Gainera, "arriskutsuak" garenez, ez digute uzten beste preso arruntekin elkartzeko. Nola izango gara "arriskutsuak", eurak direnean jipoiak ematen dituztenak? Jipoiak eta gainontzeko gauza guztiak errezago dira dispertsioarekin.

Alde batetik, Euskal Herriatik hainbat eta hainbat kilometrorra edukitzeaz gain, modulo diferenteetan dispertsaturik edukitzen gaituzte, beraiek gurekin nahi dutena egiteko. Beraz, egoera eta gertakizun hauek berriz ez gertatzeko, euskal

preso politikoak Euskal Herrian berbatzea beharrezkoa da. Eta ez soilik batzuk dioten bezala "inguratze" neurri hori.

Guk, bestalde, rekuentoei uko egiten jarraituko dugu. Baina ez dugu alde batera lagatzen neurri gogorragoren bat hartzea. Besterik gabe, espero jaiak ondo pasako dituzuela. Hemen ondoko ziegan dagoen Patxi antzuollarrak dio Bitorianatxo ondo zaintzeko.

Agur bero bat denoi eta besarkada iraultzaile bat. Alcala Mecotik.

IÑAKI ARENAZA

Presoak Euskal Herrira

Jadanik 25 txanda pasatu dira Artzai Onaren elizatik euskal presoek giza eskubideen aldeko gose greba ekimen honetatik. 15 pertsonatako txandak, guztira 375 pertsona 1995ko abenduaren 18an hasi zenetik. 25. txanda honetan (ekainak 2tik 8ra) Deba Garaiko edo Leintz bailarako 15 lagunek parte hartzen dugu. Antzuola, Arrasate, Oñati, Aramaio eta Bergara herrietako biztanleak. Aste beteko baraualdi eta orokorrean ekimen honen helburua garbia da: euskal presoak Euskal Herrian batzea eta beraien giza eskubideak errespetatzea. Zentzu honetan baita zera eskatzen dugu:



1.- Zigorren 3/4enak beteta dauzkaten preso guztiak berehala ateratzea. Beraien legea den 98. artikulua aplikatuz behintzat. Bergarako presoek kasuan: Peito, Osa, Ibabe eta Etxaniz kalean egon beharko liriateke.

2.- Espetxeetako legegintzako 60. artikulua aplikatzea. Hau da, gaixotasun sendaezinak dituzten presoak kalera- tzea. Honela Axun Sierra eta Inaxio Mendiburu artikulua honen arabera, etxean egon beharko liriateke, biak gaixotasun sendaezinak dutenez.

Gure Udaletxean tripartitoak (PNV-EA-PSOE) hartutako erabakia ez ditu puntu hauek ziurtatzen. Eskatu duten bakarra Euskal Herrira hurbiltzea delako eta hori ez da Euskal Herrian batzea. Adibidez, momentu honetan, Ceutan aurkitzen den Maria Eugenia Sevillara eramatea Euskal Herrirantz gerturatzea izango zen tripartitoarentzat. Honekin nahikoa daukate Victoriano Gallastegi, Jabier Gabilondo, Luis Pereira, Luis Abajo, Xabier Zabaleta, Nere Amaia Zabala, Felipe Altuna, Alvaro Esparza, Jose Antonio Etxeberria eta Juan Mari Garitanok? Nahikoa da, gure preso, lagun eta senide guztiak Euskal Herrian batuta nahi ditugu.

GARBINE IBABE, HASER POLVOROSA, AITOR ARANZABAL, ETOR LARRAÑAGA (ARTZAI ONAREN GOSE GREBAN DAUDEN 4 BERGARAR)

Tiira biraka



Gaztetxoentzat ekintzak

Jardunek OHOk 6. mailatik 8. mailara bitarteko gaztetxoentzat ekintzak antolatuko ditu uztailen. Astebarruan, 7etatik 9etara tailer diferenteak (irratia, musika..., etab.) landuko dira. Izen-ematea (2.000 pta.) ekainaren 14a baino lehen Kartzelan bertan, 76 36 61 telefonoan. Interesatuiei lehenbailehen izena emateko eskatzen zaie.

Aranzadiko ikasleen zozketa

Aranzadi Ikastolako BBB 2. mailako ikasleek Frontoiko partiduetan egindako zozketan 69 zerbakia izan da saritua. Irabazleak gazta bat eta bi ardo botila eskuratu ditu. Boletoren jabeak 76 44 27 telefonora deitu dezake saria eskuratzeko.

HILDAKOAK

Ceferino Garcia Gonzalez

Maiatzak 30, 63 urte

Arantxa Ortiz de Zarate Muñoz

Maiatzak 30, 52 urte

Manuel Sainz Ortigosa

Maiatzak 31, 59 urte

Maria Agirre Mendizabal

Ekainak 1, 90 urte

JAIOTAKOAK

Mikel Luna Urrutia

Maiatzak 23

Miren Agirrezabal Etxeberria

Ekainak 1



Plenoan HBk eta EAK baiezko botua eman zuten, EAJ abstenitu egin zen eta PSE-EEK kontrako botoa eman zuten.

Udal intsumisioen Mankomunitatean sartuko da Bergarako Udala

Asteleheneko Plenoan Bergarako Udala Euskal Udal Intsumisioen Mankomunitatean (EUDIMA) sartu, estatutuak onartu eta Udalaren ordezkariak izendatzeko mozioa onartu zuten HB eta EAren aldeko, EAJren abstentzio eta PSE-EEren kontrako botoarekin. Botoaren azalpenean, Alvaro Esparak (PSE-EE) adierazi zuen legearen kontrako erabakia zelako eman zuela ezezko botoa. Bestalde, Victoriano Gallastegi alkatearen hitzetan, "ez da oso lojikoa EUDIMA sortzea, EUDELen bitartez tramitatu daitezkeelako gai horiek". Maite

Aristegik (HB) erantzun zionez, "EUDELek beste helburu batzuk dauzka eta kontraesan handi samarra iruditzen zaigu Bergara intsumisio egitea eta gero akordio hori aurrera ez eramatea. Garbi dago intsumisioa beti legearen kontra egongo dela baina horrela zerbait lortzen badugu, aurrera". Mikel Egueren eta Juan Mari Garitano HB eta Eako zinegotziak izango dira Udaleko ordezkariak EUDIMAN.

Plenoaren beste puntu batean, Gorlako kantinaren adjudikazioa egiteko baldintzen plegua onartu zen. HBk elusutarra iza-

tea baloratzea eta, era berean, ahoz euskara jakitea jasotzea eskatu zuen baina ez zen euren proposamena kontutan izan. Azkenean EAJ, EA eta PSE-EEren aldeko botoekin onartu zen baldintzen plegua. Agurne Barrosok (HB) salatu zenez, "burugogorkeria iruditzen zaigu euskaraz jakiteko proposamena ez sartzea".

Fagor eta Udalaren arteko hirigintza hitzarmenari onarpena eman zitzaien eta Txapa Irratiari anplifikadore bat eta nahasketa mahai bat lagatzeko akordioa ere hartu zen.

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

Organo emaleen mahai informatiboak

Alcer, giltzurrunen donanteen elkarteak, mahai informatiboak jarriko ditu larunbatean Zurraderoko merkadilloan. Organoak emateko jarraitu beharreko pausoei buruzko informazioa banatuko da.

Olinpiada Batzordea

Olinpiada Batzordeak jakinarazi du uztailaren 8tik 20ra bitartean antolatuko diren Herri Olinpiadetan parte hartzeko izena emateko zerrendak jarri dituztela herriko hainbat tabernatan; azken eguna ekainaren 13a da. Izena ematen dutenen artean bilera egingo da ekainaren 14an arratsaldeko 7etan Kultur Etxean. Olinpiada Batzordea ostegunero biltzen da arratsaldeko 7etan Kultur Etxean.

Igerilekuak itxita igande eguerdirarte

Agorrosingo barruko igerilekuak itxita egongo dira larunbatean eta igande goizean, bertan jokatu diren igeriketa probak direla eta. Igerilekuak igandean ordubatak aldera zabalduko dira berriz.

Presoen aldeko enkartelada

Gaur, ostirala, 20:00etan, *Euskal presoak Euskal herrira* lemapean enkartelada izango da Plazan.

Artzai Onean baraualdia

Garbiñe Ibabe, Haser Polvorosa, Aitor Aranzabal eta Etor Larrañaga bergararrak gose greban egon dira aste honetan Artzai Onaren katedralean presoak Euskal Herrira ekartzeko eskatzeko.



AEKko ordezkariak astelehen eguerdiko prentsaurrean, Kultur Etxean.

Udalak baztertu egin duela salatu du Bergarako AEKk

"Ahoz aho, belaunez belaun" kanpainatik kanpo geratu da

Bergarako Akulu AEK euskaltegiak joan zen astean aurkeztutako *Ahoz aho, belaunez belaun* kanpainatik kanpo geratzea salatu zuen astelehenean prentsaurrean. Kanpaina honen barruan guraso eta gurasogai direnei euskarazko klaseak eman nahi zaizkie eta badi-rudi Udal Euskaltegia izango dela klase horien ardura izango duena. AEKko kideen hitzetan, *"merkatal taldeekin egin zen bezala, bi euskaltegiak elkarlanean arituko ginela ulertu genuen eta egin zitezkeen gauzekin proiektu bat aurkeztu genion euskara teknika-riari. Bapatean euskara teknika-riari proiektutik kanpo gelditu ginela adierazi zigun, inolako arrazoirik eman gabe. Eta eraba-*

kia Udaletxeak hartu zuela jakinarazi zitzaigun".

AEKko kideek Koldo Pereira Euskara Batzordeburuarengana jo zuten. *"Pereirak ez zuen erabaki hori hartzeko pisuzko arrazoirik azaldu. Erabakia Euskara Batzordeak hartu zuela esan zigun".*

Batzordeko aktan jasotzen denez, Pereirak Udal Euskaltegiak behar besteko baliabideak dituela esan zien. AEKko ordezkariari, berriz, ez zaie logikoa iruditzen oniritzia jaso ondoren, orain Jaurlaritzak berak bultzatutako kanpaina batean beren euskaltegia kanpora uztea.

Asteleheneko Plenoan Victoria-no Gallastegi alkateak AEKkoekin biltzekotan geratu dela esan zuen.

MUJIK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu dute Jubilatuetan

Astearteko Batzar Orokorrean 100 bat lagun bildu ziren

Asteazkenean, Jubilatuetako Batzar Orokorrean, datozen bi urteetarako Zuzendaritza Batzorde berria aukeratu zen. Tomasa Zabaleta izango da Jubilatuetako presidentea, presidente ordea Gerardo Mondragon, idazkaria Patxi Laskurain, diruzaina Honorio Sampietro eta, azkenik, bokalak Maria Angeles Aiestui, Ana Suinaga, Maria Lizaralde, Jose Morras, Ramon Agirre eta Felix Uriarte (argazkian ezkerretik eskumara).

Aurrekoan bezala, lau batzorde izango dira: zerbitzuak (sukalde, bazkari eta lorategiaz arduratuko dena), kultura (hitzaldiak, ikastaroak e.a. antolatuko dituena), aisialdirako batzordea (txapelketak, irteerak edo jaialdien ardura eraman-

go duena) eta, azkenik, laguntza taldea (gaixoei bisitak egiteko sortutako boluntario taldea). Azken talde honi dagokionez, Mari Jose Agirregabiria Gizarte Laguntzailearen hitzetan, "gaixo edo bakarrik daudenei bisitak egiteko boluntario talde bat osatu nahi da eta oraingoz 5 lagunek eman dute izena. Ekainean lehen bisitak egiteko asmoa daukagu".

Bestalde, aurtengo dauden aurreikuspenak aztertu ziren asteazkeneko batzarrean. Badirudi aurrekontuan murrizketa batzuk izan direla baina, hala ere, aurreko urteetako iharduerei eutsi nahi diete. Era berean, Tomasa Zabaletak jubilatuen partaidetza indartu beharra azpimarratu zuen.



Ahoz aho, belaunez belaun

Astelehenean *Ahoz aho, belaunez belaun* kanpainako erakusketa zabaldu zen Udaletxeko Areto Nagusian. Aurkezpen ekitaldian, besteak beste, Yosune Aristondo Hizkuntza Politikarako idazkariak, Eneko Oregi Hezkuntza sailburuordeak, Victoriano Gallastegi alkateak eta Koldo Pereira kultur zinegotziak hartu zuten parte. Kanpaina honek euskararen aldeko jarrera sendotzeko helburua dauka eta lan horretan familiak duen erantzunkizuna azpimarratu nahi da. Erakusketan, berriz, irratiko lehengo eta oraingo saioak, ipuin zaharrak, panel interaktiboak, bideoak, diapositiba emanaldiak edo euskarazko liburuak, aldizkariak etab. aurki daitezke. Erakusketa igandera arte ikusgai izango da Udaletxean, 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara.

Araba Euskarazera autobusak

Aranzadi Ikastolak eta Jardun elkarteak ekainaren 16an Amurrión ospatuko den *Araba Euskarazera* joateko autobusa antolatu dute. Irteera goizeko 9etan izango da eta itzulera 19:30etan. Txartelak Aranzadi Ikastolan eta Jardunen salgai.



Jubilatuetako Zuzendaritza Batzorde berriak aurreko urteetako iharduerei eutsi nahi die.

J.M. GALLARDO

ELEKTRAGAILUEN KONPONKETA

Mota eta marka guztietako elektragailuen konponketa.

Zerbitzu iraunkorra.

Zubiaurre, 18 1 eskuma ☎ 76 08 26 Mobila: (907) 76 08 26



LASA
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

Ekologia

Natura herrian

- Zer nolako garrantzia dauka naturak herrian?

- Oso ohituta gaude naturaren babesaz hitz egiten denean, naturaren babes hori mendiko inguruekin edo marisma haundi batekin identifikatzen. Hala ere, horrek ez du esan nahi herrian ez dagoenik ingurugiroaren ikuspegitik zaindu beharrekorik. Azken hamarkadetako joera urbanistikoa ikusita, ematen du herria edo hiria eta natura bateraezinak direla baina hori disparate bat da.

Hiri barruan natura bultzatzen denean alde batetik hiri edo herri hori estetikoki askoz ere erakargarriago bihurtzen da; bestalde, osasunaren aldetik ere biztanleak irabazi egiten du..., azken batean bizitza kalitatea hobetuz doa.

- Nola bultzatu daitezke natura Bergaran?

- Gauza asko egin daitezke baina planteamendu asko erabat aldatu behar harko lirateke. Guk, behintzat, modu errezean egin daitezkeen pare bat gauza aztertu ditugu,

ibaia eta zuhaitzak, hain zuzen ere.

- Ibaiari buruz zer gomendatuko zenuke?

- Ibaiaren kasuan sekulako suertea daukagu herriaren erditik horrelako ibai bat pasatzean. Herriari bai estetikoki eta bai naturaren aldetik aberastasun ikaragarria ematen dio eta ordua da hori balaratzen hasteko. Zorionez, hondakinak botatzeko ohitura gaindituta dago eta uren kalitatea administrazioak berak hobet-



IÑAKI IRIZAR
(Mendia Bizirik)

tuko du datozen urteetan. Hala ere, ibaiertzen kontserbazioa hurrengo baterako geratzen da.


Iaz ibaiertzeko zuhaitzak sartu genituen berarek errekuperatzeko. Hurrengo pausuak sartutako zuhaitzak pakean lagatzea, San Juan egunean suen kontua kontrolatzea, eta garbiketarak egiterakotan zaborra bakarrik (eta

ez ibaiertzeko landaretza) kentzea izango lirateke. Zurraderoko zubian, adibidez, tubo bat dago aspalditik eta hori erretiratu beharrean inguruko landaretza kendu dute.

- Zuhaitzei buruz?

- Garrantzi handia dute eta Bergaran hobeto gestionatzen hasteko oinarritzko pausu bat eman nahi dugu, herriko zuhaitzen inbentario zehatza eginez. Horrekin zenbat espezie daukagun (aberrastasuna lortzeko), non dauden, zuhaitzen adina eta beraien egoera (inausketak izan duen eragina besteak beste) ezagutu nahi ditugu. Azterketa sakona izango da eta bi aspektu hauek lantzeko inplikazio handia behar da, batez ere Udalaren aldetik.

"Suerte handia daukagu Bergaran erreka herriaren erditik pasatzen delako"



laz ibaiertzeko zuhaitzak sartu ziren erreka errekuperatzeko asmoz.

IGARO

✓ Kosmetika eta oparigaiak

✓ Eder gela

✓ Bio Solariunma

Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

Auzoko herritarrak

Bergarako auzo alkateen gorabeherak

8 auzo alkate daude Bergaran. Batzuk handiagoak, besteak txikiagoak, auzo desberdinak, eta desberdin funtzionatzen duten alkateak dira. Alkateek auzoak aurrera egin dezan asmo ugari izan arren, dirua dute oztopo nagusi.

Auzo alkatea herriko alkatearen onospena duen, eta Udalaren aurrean auzoaren ordezkari egiten duen bitartekaria da. Aitor Belategi iazko ekainetik da Murinondoko alkate. "Auzoan 18 urtetik gorako guztien zerrenda egiten da. Bakoitzak hiruren izenak markatzen ditu, kontaketa egin eta auzo alkatea ateratzen da" Horrelaxe aukeratu zuten gazteena den auzo alkatea -25 urte-. Denborarik gehien daramana, Elorregikoa da, auzoetako zinegotzi den Felipe Altuna; 76tik dago auzo alkate. Auzo bakoitzak bere sistema du alkatea aukeratzeko. Osintxukoa, esaterako, Victoriano Gallastegik zuzenean aukeratu zuen. Juan Mari Ara-

na, Imanol Bolinagaren garaitik da alkate, "hasieran botazio bidez aukeratu ninduten. Harrezkero neuri esan didate, eta hemen nago. Hala ere, ezer egiten ez dugunez berdin da nor egon".

Auzo alkatea beharrezkoa

Auzo alkate gehien iritzi, beharrezkoa da

auzo alkatea edo, hitz egokia hori ez bada, Udala eta auzoaren arteko zubi egingo lukeen figuraren bat. "Auzo alkaterik egongo ez balitz orain arte egin dena baino gutxiago egongo litzateke-0" dio Josu Agirrezabalek, Osintxuko alkateak. Aitor Belategirentzat, ostera, Udalak auzoak kontutan izango balitu, beharbada, ez li-

tzateke auzo alkate beharrik izango. Basalgoko Martin Elgarrestaren esanetan, eurek ez dute botererik, lanerako daude. "Guk auzotarren iritzia, beharrak eta eskakizunak Udalari jakinarazten dizkiogu auzo alkate guztiokin egiten ditugun bileretan. Bertan horien berri ematen da, eta lehentasunen arabera, zer egin erabakitzen



"Auzoak potentziatzeko plangintza behar da, eta hori gauzatzeko dagokion aurrekontua".

BOLINTXO

Okindegia

San Juan auzoa ☎ 76 16 93 BERGARA

Ibarrekruz, 4 EIBAR

☎ 76 63 42 ARRASATE

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak •
- Paper margotuak •
- Moketak eta tapizatuak •

BERGARA MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak


Uriarte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47 Faxe: 76 04 77

Zortzi auzo alkate

a. Zein behar duzue zuen auzoan?

b. Zer egiteko asmoa edo zein proiektu duzue?



1. AITOR BELATEGI. Murinondo.

a. Murinondon mantenimendu beharrak ditugu: batetik, bide bazterrak garbitu beharra dugu. Bestetik, bidea porlanezkoa da eta gune batzuetan aldapagatik eta,

arazoak etor daitezke, hortaz konpondu beharra ere badago. Ur kanalizazioa ere egin beharra dugu.

b. Proiektuen artean argia jartzea dugu. Auzo bat izan arren, kaletik hurbilen dago, jende asko ibiltzen da eta argia beharrezkoa dugu. Horrekin batera ur hornidura -batzuk badute, beste batzuk ez- sartu nahi dugu.

2. JOSEBA LIZARRALDE. Elosu.

a. Plaza handitzeko beharra ikusten dugu. Egun askotan bete-beteta egoten denez, txukundu eta proba plaza edo ipini behar dela iruditzen



zaigu. Baserri batzuetarako bidea hormigonatzea ere nahi dugu, neguan eta, zenbait etxetara joateko arazoak izaten direlako. Bestetik, auzoa husten ari da, gero eta jende gutxiago bizi da baserrietan; arazo garrantzitsua da. Auzoa hil ez dadin, bertan biziko den jendearentzat, etxeak merke egin beharra ere ikusten dugu.

b. Arreglu batera iritsiz gero, plaza egingo dugu. Kalea egunero garbitzen da, auzoetako bide bazterrak, berriz, ez. Duela lau urte garbitu ziren lehen aldiz, iaz garbitu ziren, eta aurten ere badago garbitzeko asmoa. 3-4 auzoren artean edurra kentzeko makina erosteko proiektua dago. Eta, azkenik Otabak prestatzen ari gara.

3. MARTIN ELGARRESTA. Basalgo.

Frontoia estali nahi dugu. Elizpea eta horma bat konpondu beharrean



"1.800 milioiko aurrekontutik 11 milioi daude auzoetarako, %8 besterik ez".

da. Gero auzotarrei jakin eragiten diegu. Auzo alkaterik egon ezean inork ez luke ezeren ardurarik hartuko, eta ez ez ez litzateke egingo".


Funtzionamendu desberdina

Auzo alkateak Udalarekin bilera egin baino lehen, auzotarren premien berri jasotzeko orduan, auzoek desberdin funtzionatzen dute. Angiozarren, esaterako, Gorka Elortza da auzo alkate, baina auzotarrek aukeratutako 12 bat lagunekin batzorde bat ere ba-

ESKUEN BIDEZKO SENDAGILEA
Reiki maisua - Naturista -
 Era guztietako gaisotasunen tratamendua: gaisotasun kronikoak, nerbioetakoak, emozionalak, degeneratiboak...
KONTSULTA: Aranerreka, 24 1. ☎ 76 56 66

GURIA
Taberna
 Bidekurutzeta, 5
 ☎ 76 20 34

LAKET
gizon emakume
 Barrenkale, 35 BERGARA



3 daude, baina jabetasunik ez du eta lehenengo erregistro arazoa konpondu behar da. Eliz ondoan, kaminpean, aparkalekua egiteko beharra ere badago, eta txukuntzeko jardina edo zedozer ere jarri nahi dugu. Beharrei eta proiektuei etorri ahala heltzen diegu.

4. PELLO URZELAI. Ubera.

a. Auzoetan larriena auzoak zahartzen ari direla ikusten dut, jendea kalera dator. Etxebizitza arazoak daude, etxea ez bada berritzen hil egiten da. Auzoak bizirik irauteko frontoiak,



4 obrak egitea eta zerbitzuak jartzea ondo dago, baina hemendik urte batzuetara inor biziko ez bada, norentzat egingo dira obra horiek? Jendea auzoetan geratzeko sistemaren bat jarri behar da martxan. b. Argiteria sarea aldatu nahi dugu: zati batean berritu eta beste leku batzuetan aldatu.

5. GORKA ELORTZA. Angiozar.

a. Lehenetasuna auzoaren biztanle kopuruari eustea da, eta dugun erronkarik nagusiena, jendea gera dadin, etxebizitzak egitea.

Beharrezkoa da auzoan zerbitzuak jartzea eta mantentzea, baina biztanlerik ez badago alferrik da dirua inbertitzea -ume kopurua jaisten bada, esaterako, eskola ixteko arriskua dago-. Bestetik, Angiozarko auzoak elkarren artean lotzea beharrezkoa da, eta horretarako bideak egin egin behar dira. Horretaz gain, arazo puntualak daude: Elixamendiko ermita konpontzea, e.a.

b. Beheko kalea zabaltzea eta txukuntzea; frontoia konpontzea eta estaltzea; Labegaraietako bidegurutzea konpontzea; Otxoa Angiozarko etxea erosteko proiektua



dago. "Urteko plangintza egina dugu eta bilero elkartzen garenean jarraipena egiten dugu. Lehenetasuna duten gaiekin aritzen gara, eta beharrrak ateratzen badira horiei heltzen diegu". Pello Urzelaik esan digunez, Uberan auzo alkateaz gain, Guraso Elkartea dago, eta erabaki handiak hartu behar direnean denen artean hartzen dituzte, "sarri elkartzen gara". Beste auzoetan, berriz, auzotarrak auzo alkatearengana zuzenean joan, eta esateko dutena inolako bilerarik egin barik adierazten diote; bile-

ra gai garrantzitsua dagoenean egiten da. Juan Mari Arana San Juango alkatearen esanetan, auzotarren bilerak egiten dituztenean gero eta jende gutxiago joaten da. "Zertarako elkartu, beti berdina entzuten ari bagara? Gure arteko bilera egin, Udalera joan eta esaten digute dirurik ez dagoelako ezin dela egin. Jendea etsipena hartuta dago".

11 milioiko presupostua

Felipe Altuna Elorregiko auzo alkateak eta au-

AUZOETAKO ETXEBIZITZA ETA BIZTANLE KOPURUA

AUZOA	Etxebizitza	Beteta	Biztanleak
ANGIOZAR	130	89	333
BASALGO	37	22	77
ELORREGI	58	41	129
ELOSU	31	12	31
MURINONDO	36	22	90
OSINTXU	221	158	526
SAN JUAN	59	52	201
UBERA	54	40	161
BERGARA	5.547	4.547	15.542


Iturria: Bergarako Udala. 1991ko erroldatik ateratako datuak.

CAMACHO
Drogeria
Usaindegia
 Bidekurutzeta, 24 BERGARA
 ☎ 76 13 35

Usoa Pub

 ☎ 76 38 57
 Irala, 1

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
 • Zoruen kutxilatuta eta barnizaketa •



ere badago, han medikua eta kulturetxea jartzeko, orain medikua eta gaztetxea dagoena bota eta plaza handitzea.

6. JOSU AGIRREZABAL. Osintxu.

a. Ikastola zabaltzea interesgarria izango litzateke, azken 2 urteetan 8 ume jaio baitira. Garraiorako laguntza badugu, zaintzailea ere bai, baina Osintxura ekarri nahi dugu ikastola. Ur saneamenduaren kontua ere hor dago, hala ere, dirudienez 2005erako edo Eusko Jauriaritzak duen planean sartuko gara.


b. Herri barruko bide ertzak pintatzeko asmoa dugu. Iaz baserri erdietarako kamino bazterrak garbitu ziren, datorren urtean beste erdia egingo da. Gauetan paseoan jende asko ibiltzen da, eta ikuspen handiagoa egon dadin. Eliza pintatzeko asmoa ere badago: herritarak dirua ematen

ari dira, baina Udalari laguntza eskatuta dugu. Zubia konpontzeko asmoa ere badugu.

7. JUAN MARI ARANA. San Juan.

a. Zer nahi eta behar dugun? Dagoen diruarekin ezer ez, dirua balego gauza asko. Berez, guk ez dugu ezeren beharrik; adibidez, guk frontoirik ez badugu, ez dugu teilatua konpondu beharrik, pintatu beharrik...

azpiegiturarik ez badugu, zer egingo dugu, bada? Eta frontoi beharra badugu, beste auzo batzuetan baino erabilera hobea izango luke. Gainera kontutan hartu autobusa bertaraino iristen dela, beraz, herritar guztiengat



etorriko litzateke ondo. Plaza aurea konpontzea eta txukuntzea beharrezkotzat jotzen dugu. Hor arazoa dugu, Fagorrek dio plaza zatia

Udalarena dela, Udalak berriz, Fagorrena dela. Udalaren arabera, jabetza kontua konpondu arte ez da ezer egingo. Tartufo aurrean zikinak botatzeko kontenedorea jarri nahi da.

b. Elizan hezetasun handia sartzen delako, udaberrian lurra 80 metro karratu inguru jaistekoa asmoa zegoen, baina eliza Udalarena ez bada, ezer ez dela egingo esan digute.

8. FELIPE ALTUNA. Elorregi.

a. Eliza ostetik frontoira bidea egin beharra dago, jende asko ibiltzen delako. Soziedadetik Gurutze Gorrira bitartean lur sail bat dago platano batzuekin, ba, han parke moduko bat egin nahi dugu.

b. Soziedadea zisterna baten atzetik dabil. Lehenengo, ostera, jabearekin arreglura iritsi eta lurra eskuratu behar da.



zoetako zinegotziak azaldu digunez, 11 milioiko aurrekontua dute aurten auzoek ekipamendurako, "eta ura, argia, e.a. kontutan hartuta 45 milioi". Auzo alkate gehienek aurrekontu urria dela diote. Aitor Belategik dioenez Bergara baserri mailan eta lurrez auzoetan Gipuzkoako herririk aberatsena izango da, baina ez

dute dirulaguntzarik. Juan Mari Aranaren ustez, "aurrekontuak egitean parte hartu beharko genuke, bestela zertarako gaude? Auzotarren biztanleen proportzioari presupostuaren %8a dago, gutxigorabehera, baina 1.800 milioiko aurrekontutik 11 milioi baino ez digu ematen. Auzoak benetan poten-

tziatu nahi badira, Udalak aurrekontuan diru kopuru handiagoa eskaini beharko lieke auzoei, eta aurrekontuak egitean gure iritzia aintzat hartu beharko luke. San Juanen, esaterako, azken 10 urteetan txistulariak ekartzeko-eta eman du dirua, baina bestela, 40.000 duro gastatu dira".

Plangintza?

Gorka Elortzak plangintzarik ez dagoela dio: "auzoek eta baserriek bizirik irautea nahi badugu, epe luzerako plangintza beharrezkoa da. Plangintza balego aurrekontuan diru kopuruan isladatuko litzateke, baina plangintzarik ez dagoenez, ondorioztat au-

Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Angiozar, 37 ☎ 76 27 82

KIRIBILTXO
ILEAPAINDEGIA

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetara, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu.

zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko kamisetetan letrak, zenbakak edo dibujoak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafoak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

rrekontuan dagoen partida eskasa dugu". Felipe Altunaren ustez, plangintza ezin da gauzatu "auzo bakoitzak behar eta eskabide desberdinak dituelako. Aurrekontuak agintzen du, dagoen diruarekin moldatu behar da, eta auzo bakoitzak dituen premiei erantzuten zaie. San Juanen, Elorregin eta Basalgon, esaterako, aurten ez da ezer egin, besteetan behar handiagoak zeudelako. Osintxu eta Angiozar berri txikiak dira eta laguntzak ere handiagoak behar dituzte".

J. M. Aranak "erreka-dista lana" egiten dutela dio, "ez dugu ezer egiten, bileretara joan, eta beti berdina esan, hobe genuke zinta bat grabatu eta jartzea". Joseba Lizarralderen iritziz, herrian, kalean, egiten diren lanak ikusi egiten dira, auzoetakoak ez, eta ez da inbertitzen. "Edurra egiten duenean ere ahal den moduan moldatu behar izaten dugu". Martin Elgarresta ere iritzi berekoa da: "aurrekontuak murriztu egiten dira eta ez dago gauza handirik egiteko modurik. herrizat bakarrik kalea hartzen da".

Auzolanik ez

Josu Agirrezabalak dioenez, auzo txiki baten ezin dira zerbitzu guztiak jarri, eta bestalde, Udalak auzoak ondo tratatzen ditu. "Osintxun gauza asko egin da, eta gero eta auzolan gutxiago egiten da, Udalak egiten dituelako lehen auzolanean egiten ziren lanak". Horretan auzo alkate guztiak datoz bat, "auzolana gero eta gutxiago egiten da", dio Pello Urzelaik. "Oso gutxi bizi dira baserretik, jendeak lan egiten du, eta herrian bezalala, auzoetan ere ia ez dago auzolanik. Gainera, auzo batean gastatzen den dirua ez da auzotarrentzat bakarrik, herritarrentzat ere bada, nahi dutenean joan daitezke auzoetara". "Auzotarrak ahaztuta gaude" dio J. M. Aranak. Felipe Altunaren iritziz, "auzokoak auzokoa ikusten du, eta kalekoak kalekoa. Kaletarrek ere esango dute euren kalean oraindik zedozer egiteke dagoela. Brigadetan 25 badabilta, ezin dute 100en lana aldi berean egin, eta lanak egiterakoan brigadetakoak ez dira iristen".



"Lehen auzolanean egiten zena orain Udalak egiten du".

EGUZKITARAKO JANTZITA



GIULIO TABACCHI

Eguzki betaurrekoen bilduma berria

Estilo berri bat heldu da. Estilo ausarta, bakana, desberdina.

Eguzki betaurrekoen diseinu deigarria, lotsarik gabeko jendearentzat.

MultiOpticasen Giulio Tabacchiren bilduma berria da.

Gainera, nahi baduzu, graduatzen dizkizugu.

Zatoz eta jantzi zaitez eguzkitarako.

MULTIOPTICAS J. LARRAÑAGA

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

J. Carlos Guerra, 1 • ARRASATE

Ibargaray, 16 • BERGARA

J. M. Barandiaran Enparantza, s/n • ORDIZIA


MULTIOPTICAS EIBAR

ZERBITZU OPTIKOETAN 1a

Bidebarrieta, 2 • EIBAR

ETA GAINERA, KAMISETA BAT OPARI!!

Euskara zertarako, umeeekin eta txakurrekin hitzegiteko bakarrik?




Kristina Agirre

Nik, normalean denekin erabiltzen dut euskara: lagunekin, gurasoekin, umeeekin...




Maite Soto

Denekin egiteko ondo jakin behar da. Nik, batez ere, umeeekin egiten dut. Euskara berandu ikasi nuen eta gazteleraz hitzegiteko ohitura aldatzea oso zaila da.




Ignacio Arruti

Seme-alabekin bai, baina lagunekin ez dut euskaraz berba egiten. Gure denboran ez genuen lagunartean euskaraz egiteko ohiturarik. Egun, gehiago entzuten da gazteen artean.




Joseba Jauregi

Lagunekin, koadrilan eta ahal den lekuetan egin behar da, ahalik eta gehien zabaltzeko. Bergararrek herrian euskaraz egin behar dute, eta ez dakienari erakutsi.



Susana Navas

Uste dut mundu guztiarekin berba egiteko dela. Nik ez dut ulertzen, baina jakingo banu, jende guztiarekin hitzegingo nuke euskaraz.



Agustin Iñarra

Nik lagunekin berba egiteko euskara erabiltzen dut, txakurrekin zailago ikusten dut... Nik, behintzat, euskaraz hitzegiteko ohitura daukat.



**ESKORIATZAKO
MAGISTERIO ESKOLA**


Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

1996-97 ikasturterako aurreinskripzio-epea zabalik dagoela.

Heziketa arloan espezialitate erreglatuak ez ezik hainbat eginkizun bete ahal izateko oinarrizko formakuntza eskaintzen du karrera honek: hala eskoletan, nola euskalduntze munduan, iharduera soziokulturaletan.

INFORMAZIOA: IRAKASLE ESKOLA ☎ (943) 71 41 57
20540 ESKORIATZA





Ahoz aho, belaunez belaun

250 guraso eta gurasogai hasiko dira euskara ikasten edo beren euskara hobetzen.

Joan zen urte amaieran eurentzako euskara-klase bereziak eskaini zitzaizkien Bergarako komertzioetako 600 enplegatuei. Horren ondorioz, urtarrilean hasita, 40 merkatari dabilta beren euskara maila hobetzen.

Orain "Ahoz aho, belaunez belaun" kanpainaren barruan Bergarako Udalak, herriko ikastetxeekin batera, klase bereziak eskainiko dizkie gurasogaiei eta ume txikiak edo gaztetxoak dituzten gurasoei. Eta komertzianteen kopuruekin kalkulua eginda, 250 bat guraso hasiko direla atera zait niri. Ze, klaro orain arte batzuk esaten zuten: "nik ez daukat astirik egunero-egunero bi ordutan klasera joateko". Baina orain, klase hauek, astean bi egunetan ere izan litezke, izena ematen dutenek hala erabakiz gero. Eta orain, gainera, taldeak interes eta premia berdintsuak dituztenekin osatuko dira. Eta, orain, gainera klaseak beharbada, beren ikastetxean izango dira, arratsaldean umeak ikasten ari diren bitartean... edo iluntzean... Azken batean, orain, klaseak ze ordutan izango diren, ze eduki izango duten eta abar, apuntatzen direnekin zehaztuko delako.

Eta horrela, klaro, 250 guraso inguru apuntatuko dira. Eta gero, irakasleari oharra jartzerakoan hatxea non jarri jakingo dute, edo ahizpari gutuna idazteko arazorik ez dute izango, edo beren umei eskolako lanetan lagundu ahal izango diete, edo... A, baina 250era iristeko zuk izena eman behar duzu, e, irakurle! Informazio gehiago jasotzeko, zeure umeen ikastetxean edo Udaletxean.

Estepan PLAZAOLA



Gartzelan

Nekeza eitzen da sinistia, baina...

Basauri, Iruñea, Langraitz, Martutene, A Coruña, Albacete, Algeciras, El Acebuche (Almería), Avila, Alcazar de San Juan (Ciudad Real), Alacant, Badacoz, Bonxe (Lugo), Burgos, Caceres I, Caceres II, Madrid I (amak), Madrid I (emakumeak), Madrid I (gizonak), Madrid II, San Anton (Cartagena), Castello, Ceuta, Cordoba, Cuenca, Daroca (Zaragoza)...

...Eivissa (Balears), El Dueso (Santoña), Herrera de la Mancha (Ciudad Real), Huelva, Huesca, Jaen II, Jerez de la Frontera, Leon, Logroño, Malaga, Mallorca, Melilla, Monterroxo (Lugo), Murcia, Navacarnero (Madrid), Ocaña I (Toledo), Ourense, Palencia, Puerto I, Puerto II (Cadiz), Topas (Salamanca), Salto del Negro (Las Palmas), Santander...

...Segovia, Sevilla II, Soria, La Laguna (Tenerife), Teruel, Valdemoro (Madrid), Valencia II, Valencia III, Valladolid, Pontevedra, Villabona (Asturias), Zamora, Zaragoza, Baiona, Clairvaux, Fleury Mergoris, Fresnes, Grandignan, Muret, La Sante, Pau, Perigueux, Poissy, Saint Maur, Uzerche, Yulienes...

...bistan daona ezin da ezkutau.

Joxe LAZKANO

INGELES FRANTSESA ALEMANA

UDAKO IKASTARO TRINKOAK

- **NOIZ:** Ekainaren 24tik uztailearen 12ra.
- GOIZ ETA ARRATSALDF7
- ADIN GUZTIAK:
 - Haurrak
 - Gazteak
 - Helduak
- 3 EDO 4 ORDU:



INFORMAZIOA:

Begarako UNED. (3. pisua)

☎ 76 06 87

MATRIKULKA ZABALIK!!

■ **Literatur lehiaketa**

Zapatuan Literatur lehiaketaren sari banaketa egin zen Zabalotegiko aretoan. XI. edizio honetan 280 lan jaso dira eta hauek izan dira kategoria ezberdinetako irabazleak: 1988 eta 89an jaiotakoan artean, **Neritzel Albisua** izan da irabazlea, bigarren **Mireia Mendizabal** sailkatu da eta hirugarren **Irti Altuna**; 9 eta 10 urtekoen artean, berriaz, **Maialen Madariagak** irabazi zuen **Nere Gonzalez** eta **Garazi Olabarriaren** aurretik; 1984 eta 85ean jaiotakoan kategorian lehena **Lorea Eguren** izan zen, bigarren **Lexeia Larrañaga** eta hirugarren **Nuria Fernandez**; eta, 1981-83 bitartean jaiotakoetan, **Maitane Larrañagak** eraman zuen lehen saria, **Ainhoa Guridik** bigarrena,



eta **Iker Ugaldet** hirugarrena. Azkenik, nagusien kategorian **Roberto Izagirre** izan zen irabazlea eta jarraian **Unai Lopez** eta **Mikel Larrañaga** geratu ziren. Era berean, epaimahaiak akzesit bana eman zien **Jon Sanchez** eta **Osane Jimenezi**.

■ **Mendiz mendi**

Pol-Poleko gazte taldekoak Bergaratik-Donostiara joan ziren mendiz mendi pasa den asteburuan. Eguraldiak laguntza haundirik eman ez zien arren, euri tantak izan baitzituzten, pentsatutako moduan 3 egunetan heldu ziren Donostiara. Primeran ibili omen ziren, eta lehenengo egunean bustita bukatu arren mendiaz gozatu zuten. Gainera, bidean zehar lagunak egiteko aukera izan zuten, eta Zarautzeko Urdaneta auzoko jai batzordeko bazkari herrikoirako mahaiak eta aulkiak jartzen lagundu zieten esan digute. Baten batek bazkaltzen geratzeko proposamena egin omen zuen, baina ez zuen arrakastarik izan, eta formal-formal jarraitu zuen taldeak Donostiaraino. Argazkia Igeldon ateratakoa da.



OXIRONDO mediku kontsultategia

Gogorarazi nahi diegu **Lagun Aro, Previsia eta Capisako** aseguratuei helbide berri bonetara eraman dugula mediku kontsulta: **Boni Laskurain, 2 behea ☎ 76 20 50**

ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
Leihoak, atek, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**




Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30




■ Urrezko eztaiak

Hermenegildo Olabarria eta **Modesta Agirre** bergarrek ezkondu zireneko urrezko eztaiak ospatu dituzte. Modesta eta Hermegildo orain 50 urte ezkondu ziren Arantzazun eta hori ospatzeko bertara hurbildu ziren. Meza entzun ondoren, familiartekoekin bazkaria egin zuten Goiko Benta jatetxean. Zorionak!!

Zertan dihardute ba?



Andoni Larrañaga 26 urteko antzuolarrak Borges enpresaren olio botila eta etiketaren diseinua egiteko deitu zuen lehiaketa irabazi du. Andonik Diseinu Grafiko ikasketak amaitu berri ditu Bartzelonako Massana Escolan, eta Borges enpresaren lehiaketa irabazteagatik 200.000 pezeta eskuratu ditu. Badirudi Japonen hainbat ikerketa egin ondoren, Andonik diseinatutako botila Gabonak aldera izango dela merkatuan. Lehenago Europa mailan antolatutako turroi eta urdaiazpiko bi *packing* lehiaketetan sariak eskuratu zituen.



■ BK Eren zozketa

Joan zen ostiralean Bergara K.E.k denboraldi amaieran eginiko zozketaren sari banaketa egin zen. **Carlos Cotillas** txartel saridunaren (2.215 zenbakia) jabeak zizalax, txirlak, legatza, bildotsa, kaja bat ardo eta txanpana irabazi zituen. Argazkian irabazlea **Miguel Unamuno "Piti"** B.K.E.ko ordezkariaren ondoan.

PINTXO eta BOKADILOAK SEKULAKO MARTXA!!

EUXEBIO II

Irala Kalea z/g ☎ 76 07 92

A mets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK
Berezano auzoa OÑATI

Jesusa Laskurain

32 urtean Lizar altzaridendan dago dendari. Aurretik Garate dendan ibili zen, eta ezkondu zenean Lizar etxeko altzaridendan hasi zen. Bi seme-alabaren ama da.

- Eguzkirik hartzen?
- Mantxak ateratzen zaizkit eta debekatu egin didate; duela gutxi Lanzaroten egon gara eta 20ko protekzioa eman dut.
- Zein da zure ametssetako lekua?
- Bizitzeko Bergara, ikusteko Australia.
- Zer ez zenuke sekula erregalatuko?
- Lanerako zedozer.
- Poesia gustatzen zaizu?
- Prosa gehiago. Ia egunero irakurtzen dut; orain Galaren A quien conmigo va-ekin ari naiz.
- Egunkarian lehenengo irakurtzen duzuna?
- Txutxumutxuen orria, eta gero lehenengoa.
- Opera sekula entzun duzu?
- Alabarekin joatekoa naiz, baina beti hurrengorako lagatzen dugu.
- Janari exotikoak gustatzen?
- Probatzeko bai, baina jateko, hemengoa; ez dago halakorik.
- Hika berba egiteko ohiturarik



"Erraz gorritzekoa naiz. Txarrena da konturatzen naizenean gehiago gorritzen naizela. Gorla da Bergarako parajerik alaiena eta Australia ezagutzea gustatuko litzaidake"

baduzu?

- Lagun batekin noizean behin jarduten dut, baina bestela ez.
- Superstiziosoa zara?
- Batere ez, ez dut sinisten.
- Erretzailea zara?
- Lehen zedoertxo erretzen nuen, orain ez.
- Peña batean sartuko zinategi?
- Egunkarian irakurtzen dut Bergara, Reala eta Athletik nola doazen, baina ez naiz zalea.
- Sofa ala mezedora?
- Sofa, askoz erosoagoa da.
- Mikroondasa ala barbako?
- Mikroondasarekin ohituz gero, oso beharrezkoa da.
- Salan zer ezin da falta?
- Sofa. Mahai bat ere ez.
- Berriz jaioko bazina zer izatea gustatuko litzazuke?
- Sekula ez dut horrelakorik pentsatu...
- Aldizkari arrosak gustatzen?
- Argazkiak eta letra handiak bakarrik ikusten ditut.
- Zein egur motatako gela jarriko zenuke?
- Egurra izanez gero, denak dira politikak: aritza, gaztaina...
- Bergarako parajerik alaiena?
- Gorla. Txikitatik gustatzen zait.
- Gorritzen zara?
- Erraz gorritzekoa naiz. Txarrena da konturatzen naizenean gehiago gorritzen naizela.
- Biziotxorik izango duzu.
- Kafea. Bakarra hartzen dut, baina gustora hartuko nituzke gehiago.

IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

BENITO

- Zoruak leundu eta barnizatzea
- Parketa jartzea

PINKIAK

☎ 76 33 80 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Bergaran.
☎ 76 39 64.

Pisua salgai Osintxun.
Erdi amueblatuta, argitsua.
☎ 76 17 27/55 98 (gauzez).

Pisua salgai Koldo Eleizal-
den. ☎ 76 09 37.

Pisua salgai Bidekurutzeta-
tan. ☎ 76 43 22/56 07.

Pisua salgai Barrenkalean.
Berriztuta. ☎ 78 70 30.

Pisua salgai Bolun. 100
m2. ☎ 76 22 72.

Pisua salgai Antzuolan.
☎ 76 25 32.

Etxea salgai San Anto-
nion. ☎ 76 57 35.

Berriztutako **ganbara** San
Pedron salgai. ☎ 76 24 05.

Garajea salgai San Loren-
tzen. ☎ 76 58 28.

Garajea salgai Boni Las-
kurainen. ☎ 76 47 67.

Pisua alokairuan Bideku-
rutzetan. ☎ 76 36 99.

Pisua salgai Frontoian.
☎ 76 51 73.

Garajea salgai Zurrade-
ron. ☎ 76 02 89.

Pisua salgai Mugertzan.
☎ 76 53 79.

DENETARIK

Kotxe silla bat salgai.
☎ 76 58 84.

Denda-remolkea salgai.
☎ 76 37 82.

Otsein labadora salgai.
☎ 908 67 09 10 (Markos).

2. eskuko **Mobylette** bat
erosiko nuke. ☎ 76 15 81.

Golf-eko Wilson makilak
salgai. ☎ 76 10 93/32 15 89.

Imar karro denda salgai.
☎ 76 59 56 (gauzez).

Boxer txakurrak saltzen
ditut. Otsailaren 5ean jai-
takoak. ☎ 76 06 84.

Trialsineko Monty bizi-
kleta salgai. Egoera onean.
☎ 76 56 13.

Opel Kadet GSI kotxea
(SS-AF) salgai. 16 balbula.
☎ 76 24 81.

Segamegadrive konsola
salgai. ☎ 76 23 17 (Mikel).

Nissan Vanette (SS-AK)
salgai. ☎ 21 18 55.

Mendiko bizikleta sal-
gai. ☎ 76 51 55.

Lancia Delta GTI kotxea
salgai. ☎ 76 59 40 (Jorge).

Karrerako bizikleta sal-
gai. Vitus koadroa.
☎ 76 06 75 (Iñigo).

Karakol eskilara salgai.
☎ 76 14 84.

Mastin txakurkumea sal-
gai. ☎ 76 54 26.

Casio poltsikoko telebista
salgai. ☎ 76 56 13 (Markel).

Neoprenozko ziklista
txaketa salgai. M neurri-
koa. ☎ 76 52 31.

LANA

OHO eta ingeles klaseak.
☎ 76 17 18 (Jesus).

Ingeles klaseak.
☎ 76 40 89 (Gemma).

Euskara klaseak hartuko
nituzke. ☎ 76 58 73.

Ingeles klaseak ematen
ditut. ☎ 76 06 56 (Irene).

Klase partikularrak ema-
ten ditut. ☎ 76 04 65.

Klase partikularrak
ematen ditut. ☎ 76 33 26.

Haurrak zainduko nituz-
ke. ☎ 76 18 75.

Etxeko lanak egingo ni-
tuzke. ☎ 76 38 00.

Haurrak zaindu eta e-
txeko lanak egingo nituzke.
☎ 76 21 96 (Mertxe).

Pintura klaseak emango
ditut uztailean.
☎ 76 44 17 (Usoa).

Etxeko lanak egin eta
haur bat zaintzeko neska
euskalduna behar da.
☎ 76 06 69.

BBB, UBI eta unibertsitate
mailako klase partikula-
rrak. ☎ 76 35 37.

Emakume bat behar da
haurrak zaindu eta etxeko
lanak egiteko. ☎ 76 30 37.

Ordenadorez pasatzen
dira lanak. ☎ 76 27 59.

Zaharrak zainduko ni-
tuzke. ☎ 76 11 11.

**INFERNUKUA
TABERNA**

Masterreka, 23 ☎ 76 18 49

**LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak**

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...



Martokua, 32 ☎ 76 45 94

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

Goierri
AUTOGIDARIEN ESKOLA

Fraiskozuri Plaza, 5 BERGARA ☎ 76 41 50

Erakusketa



EKAINAREN 3tik 9ra. UDALETXEAN.

- Astegunetan: 18:00-20:00

- Larunbat eta igandean: 12:00-14:00 eta 18:00-20:00

EKAINAREN 4tik 7ra.


- San Martin Ikastetxean.

EKAINAREN 11tik 14ra.

- Aranzadi Ikastolan: 17:00-19:00

- Mariaren Lagundia Ikastola: 16:30-18:00.

**Ikusleen
artean
kamisetak
zozketatzen
dira!!**



GURASOENTZAKO

Euskara klaseak **96/97 IKASTURTEA**

- Berrigara irakurtzea kosta egiten bazaizu...
- Umeari etxeko-lanetan laguntzeko arazoak izaten badituzu...

ANIMA ZAITEZ ETA EMAN IZENA:

- **San Martin ikastetxean, Aranzadi Ikastolan edo Mariaren Lagundia Ikastolan.**

Erakusketa-gelan edo idazkaritzan.

- **Udaletxeko erakusketa-tokian.**

Klaseen edukia, asteko egunak eta orduak izena ematen dutenekin zehaztuko dira.

Ipintzako Adin Mugarik Gabeko Futbol txapelketa

■ EMAITZAK

MONGATXURRAK-LA JUVE	6-0
A ZE FLAXA-SHAKTALE	5-2
PATXARAN TEAM-ANGIOZAR	1-4
AMILOTX-GUADELEST	4-1
GUADALEST-MONGATXURRAK	0-5
ANGIOZAR-AMILOTX	1-1
SHAKTALE-PATXARAN TEAM	7-1
LA JUVE-A ZE FLAXA	2-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-EZINLEIKE	4-1
ARLOTEAK/OILAGORRA-FACUTA	3-0
PAOK-XURRUPAK	0-2
MATXAKATEGI-ALTOS PORNOS	1-0

■ PARTIDUAK

Ostirala 7

19:15: EZINLEIKE-PAOK
20:30: FACUTA-BILDURBAREK OPEL/LAM

Asrelehena 10

19:15: MONGATXURRAK-A ZE FLAXA
20:30: PATXARAN TEAM-LA JUVE

Asteartea 11

19:15: AMILOTX-SHAKTALE
20:30: GUADALEST-ANGIOZAR

Asteazkena 12

19:15: PAOK-FACUTA
20:30: ARLOTEAK/OILAGORRA- BILDURBAREK

Osteguna 13

19:15: MATXAKATEGI-EZINLEIKE
20:30: ALTOS PORNOS-XURRUPAK

■ SAILKAPENAK

A TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. MONGATXURRAK	4	2	11	0
2. AMILOTX	3	2	5	2
3. ANGIOZAR	3	2	5	2
4. SHAKTALE	2	2	9	6
5. A ZE FLAXA	2	2	6	4
6. LA JUVE	2	2	2	7
7. GUADALEST	0	2	1	9
8. PATXARAN TEAM	0	2	2	11

B TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1. BILDURBAREN OPEL/LAM	2	1	4	1
2. ARLOTEAK	2	1	3	0
3. XURRUPAK	2	1	2	0
4. MATXAKATEGI	2	1	1	0
5. ALTOS PORNOS	0	1	0	1
6. PAOK	0	1	0	2
7. FACUTA	0	1	0	3
8. EZINLEIKE	0	1	1	4

■ JOKOZ KANPO



PATXI OSA SHAKTALE

Ze moduz orain arte jokaturako partiduetan?

Lehen partidua A Ze Flaxaren kontra jokalaria bat gutxiagorekin galdu egin genuen eta 11 joan izan bagina uste dut irabaziko genuela. Bigarren partidua Patxaran Teamen aurka errez irabazi dugu eta orain arte gauzak ondo doaz.

Konforme tokatu zaizuen taldearekin?

Bai, biak nahiko antzerakoak dira eta. **Federatuekin ala federaturik gabe?** Uste dut ondo dagoela jokalaria federatuak jokatzeara, maila hobea ematen dietelako taldeei eta horrela joko politagoa ikus daiteke.

Orain arte gehien gustatu zaizun taldea?

Mongatxurrakek uste dut daukala talderik onena eta berrien artean La Juve asko gustatu zait.

Zer espero duzu Shaktalerekin egitea?

Bigarren fasera sailkatzea espero dut eta gero, datozenak datozela.

Arbitraiekin gustora?

Arbitroak nahiko txarrak dira, baina hori normala da, urte osoan zehar ez dira aritzen eta afizionatuak dira.

Zein izango da txapeladun?

Ez dakit, oraindik partidu asko falta dira eta ezin daiteke esan nork irabaziko duen.

■ GOLEGILEAK

4 gol

Xabier Zangitu. Mongatxurra.

3 gol

Ibai Elorza. Angiozar.

Iban Etxeberria. Mongatxurra.

Pako Vallejo. A Ze Flaxa.

2 gol

Igor Larrañaga. Arloteak/Oilagorra.

Marcos Alonso. Amilotx.

Mikel Gallastegi. Shaktale.

Nesken futbito txapelketa

■ EMAITZAK

BLUE STARS-POTZU TA ZABABURUAK	0-8
BOKAGE-BOST	---
POWER RANGERS-GUK GEUK	---

■ PARTIDUAK

LARUNBATEAN MIGUEL ALTUNA INSTITUTUAN

11:00: POTZU TA ZAPABURUAK-BOST
12:00: POWER RANGERS- BLUE STARS
16:00: GUK GEUK-BOKAGE

Labegaraietako Kopa Txapelketa

■ EMAITZAK

PATXARAN TEAM-FAC	0-1
XURRUPAK-ARI ARI	2-5
OGIZUN-AUTOBEREZI	7-2
PJS-BILDURBAREK OPEL/LAM	0-7
UFALA-ARTUSAMAK	6-5
TXIPIRON-ARTUSAMAK	3-1
MADURA INDUSTRIAS GOL-EH BITERRAK	5-0
ERI-LABEGARAIETA	6-1
AUTOBEREZI-NEKROFILIKOS	4-1
IGANDEKOAK-PJS	0-1
ARLOTEAK-KABIA	4-1
ERROTAGAIN-CONTSRUCCIONES BERGARA	9-3
BAR CANALEJAS-SHAKTALE	9-1
ORTZI-MATXAKATEGI	5-0
ETXAGI-UVE BIKOITZA	5-4
MONGATXURRAK-KAYAK OS JARDINEIROS	7-2
OZAETA-KIROLZALEAK	4-2

■ PARTIDUAK

LARUNBATEAN BARRUAN

12:00: MOSKIS-LA JUVE
13:00: ARI ARI-BILDURBAREK OPEL/LAM
16:00: EZINLEIKE-MONGATXURRAK
17:00: ORTZI-PAGOMENDI
18:00: BAR CANALEJAS-UFALA
19:00: JAUJA OH ZEREZOS-A ZE FLAXA
20:00: NEKROFILIKOS-SOROPOTROAK

IGANDEAN BARRUAN

09:00: TXIPIRON-FAC
10:00: KAYAK OS JARDINEIROS-LA JUVE
11:00: EH BITERRAK-PATXARAN TEAM
12:00: AMOZKIBAR-ETXAGI
13:00: ORTZI-HALTZARI
16:00: NAIKARI HOOLIGANS-MADURA
17:00: INDARGORRI-OZAETA
18:00: OSINTXU-PATA NEGRA
19:00: ALDOKA MALDOKA-ERI
20:00: PAGOMENDI-GUADELEST



Gipuzkoako igeri txapelketa

Gipuzkoako infantilen igeri txapelketa jokatu da larunbat eta igandean Udal Igerilekuan. Bergara Igeri Elkartetik Antxon Maiztegi, Itsaso Fernandez, Eneritz Muguruza, Eider Balzategi, Amaia Lazpiur eta Eli Alberdi arituko dira lehian.

Larunbatean goizeko 10etan eta arratsaldeko 4retan hasiko dira probak, eta igandean goizeko 10etan. Guztira Gipuzkoa osotik etorritako 16 elkarte izango dira. Leire Zeziaga Bergara Igeri Elkarteko entrenatzaileak esan digunez, *"dominak lortu ditzakegu, baina igerilariak eurenak ez diren probetan arituko dira, datorren astean jokatuko diren Euskadiko Txapelketetarako gutxieneko marka lortzeko"*.



Euskadiko txapelketarako markak lortzea da herriko igerilarien helburua.



50 emakume inguruk hartu zuten parte aerobitolean.

Aerobiton arrakastatsua

Joan zen larunbatean jokatu zen Bolu eta Giartzu gimnasioek antolatuta Bergarako Aerobitona Labegaraieta kiroldegian. Guztira 90 partehartzaile izan ziren, horietatik 50 inguru bergararrak eta gainontzekoak Gipuzkoako beste herri batzuetatik etorritakoak. 14 urtetik 50 urtera bitartekoek hartu zuten parte, eta ez zen gizonezkorik izan. Aerobic zaleak 2 ordu inguru aritu ziren jo ta ke lanean Josean Iñarra, Idoia Moreno, Gemma Otaño eta Mari Karmen monitoreek jarritako erritmoari jarraituz. Aerobitolean ez zen lehiaketarik izan, eta ia guztiek amaitu zuten. Proba bukatutakoan hainbat opari banatu ziren kirolarien artean. Antolatzaileak pozik agertu dira lortutako emaitzarekin.

Guinness errekorrik ez zen lortu

Begarako Xake taldeak hainbat iharduera antolatu zituen joan zen asteburuan elkartearen 25. urtemuga ospatzeko. Guinness errekorra gainditzeko saiakera, zapatu goizean antolatutako partida simultaneo lehiaketa, ustela gertatu zen. Halere, antolatzaileen datuen arabera, 4.002 jokalarik bildu ziren eta ondorioz Europako errekorra Bergararantz etorri da.

Horrela bada, munduko errekorrak Kubaren esku jarraitzen du 5.000 jokalarirekin. Errekor saiakeraren ondoren Bergara Hiriaren taldekako 25. xake partida azkarren trofeoa jokatu zen, eta Bilboko Peña Rey Ardid izan zen onena. Bigarrenak Gambito valentziarrak izan ziren eta hirugarrenak Iruneko La Salle. Bakarkako txapelketan onena Pedro Lopez Mateo valentziarra izan zen, bigarrena jubenil mailako Espainiako txapelduna, Unai Garbizu, eta hirugarrena Carlos Cruz Irundarra.



Estatuko xakelariak bildu zituen herriko xake taldeak Bergaran.

T XINPARTAK

BKEren Batzar Orokorra

Datorren ostiralean, hilak 14, BKEren Batzar Orokorra egingo da 19:00etan Kultur Etxean. Zuzendaritza Batzordeak batzarrera joateko deia zabaldu die bazkide guztiei. Norbait zuzendaritzan lan egiteko prest egongo balitz bertara ager dadila eskatu dute BKEko agintariek.

San Antonio txirrindularitza saria

Bihar, larunbata, 60. San Antonio saria jokatu da bigarren urteko txirrindulari kadeteentzat. Lasterketa 15:30etan hasiko da San Antonion eta txirrindulariek 70 Km. egin beharko dituzte.

Futbol partidu ikusgarria

BKEko Zuzendaritza Batzordekoek eta emakumezkoen taldekoek indarrak neurtuko dituzte larunbatean 18:00etan Agorrosinen. Galtzaileak afaria ordainduko du.

Bergarako kadeteek bana

BKEko lehen mailako kadete futbolariak Mintxetan jokatu dute zapatuan Eibarren aurka, ohorezko mailara igotzeko partidua. Joanekoan bana egin zuten Agorrosinen.

Jesus Mari Garcia Euskadiko kulturismo txapelduna

Jesus Mari Garcia 10 urte daramatza kulturismoa egiten, eta aurtun Euskadiko eta Nafarroako txapelketan 65 kiloko mailan onena izan da. Joan zen asteburuan jokatuako Estatu iparraldeko komunitateen txapelketan, berriz, 3. geratu zen.

- Nola hasi zinen kulturismoan?

- Txikitan Mortadelo eta Filemonen komiki-etan gorputza hobetzeko iragarkiak etortzen ziren eta hara hasi nintzen idazten informazio eske. Horrela hasi nintzen kulturismoan. Bergaran Maber gimnasioa zabaldu zutenean serioago hartu nuen.

- Daukazun gorputza zenbat urtetan lortzen da?

- Gorputz bat 6 hila-betetan aldatu daiteke, egunean zerbait entrenatuz eta jaten duzuna zainduz. Halere, orain txapelketan parte hartzeko egunean 4 ordu ihardun dut entrenatzen. Goizeko 6etan jaiki eta korrika egitera joaten nintzen, ondoren lanera, eta arratsaldean pesekin ihardun ondoren, gauean korrika edo bizikletan ibiltzen nintzen. Jana ere asko zaindu behar izan dut, dena egosita eta pisua neurtuta jaten dut.

- Zelakoa da kulturismo txapelketa bat?

- Lehen proban denok gauza berdinak egiten ditugu, bata bestearekin konparatzeko, eta ondoren pose libre dago. Hor

bakoitzak bere musika eramaten du. Epaimahaiak lehen proba baloratzen du gehienbat.

- Pozik emaitzekin?

- Oso pozik. Euskadiko txapelduna naiz eta Estatu mailan 3. postua lortzea oso garrantzitsua izan da. Hasieran, nahi duzun gauza bakarra muskuloak handitzea da; baina denbora pasatu ahala, txapelketak ikustera joaten zara eta gustatu egiten zaizu.

- Entrenatzailea eta kontrola garrantzitsua izango da, ezta?

- Bai, dena kontrolatuta eramatea oso garrantzitsua da eta entrenatzaile


ona izatea beharrezkoa. Ni Martin Berroyarekin ibili naiz eta beragatik izan ez balitz, ez nuen lortu dudana lortuko.

- Zer gustatuko litzazuke lortzea kulturismoan?

- Estatu mailako txapelketa bat lortzea gustatuko litzaidake. 28 urte ditut eta oraindik nire maila gorenena urrun daukadala uste dut.

- Hondartzan jendeak begiratzen dizu?

- Bai, baina ez zait gustatzen harrokeriatan ibiltzea. Kulturismoa nire gorputza hobetzeko egiten dut; ez besteek ikusteko.



"Kulturismoa gorputza hobetzeko egiten dut; ez besteek ikusteko".

"Lan asko eginez eta Martin Berroyari esker lortu dut hau guztia"

JUANMA ARGAZKIDENDA



Antzuolako ikastolan

96ko uda-udazken moda aurreratu egin zaigu, Antzuolako ikastolako desfileari esker. Hona hemen, mutiletan atzera bueltan datozen praka motzak, jertsei zabalak, goraino lotzen diren alkandorak eta era guztietako flekilloak. Nesketan ez dator horrelako nobedaderik: minifalda izango da nagusi denboraldi berrian ere, peto kuadrodunak eta sandalia moduko zapatak.

Argi eta garbi, orain 26 urte dituzten gazteak, duela 21 urteko erropekin dotore asko egongo dira! Arazoa talla izango dute...

Zutik: Gotzon Del Teso, Andoni Larrañaga, Josu Agirre, Itziar Jauregi (andereñoa), Mikel Santos, Gorka Iraeta eta Iñaki Gabilondo.

Jarrita: Nerea Moreno, Amaia Azkarate, Izaskun Larrañaga, Ana Isabel Garitano eta Maite Aristi.

Nafer, s.a.

Rekanbioak

San Lorenzo 25 BERGARA ☎ 76 16 88 - 76 39 59



1958. urteaz geroztik
profesionalen zerbitzura!!

Banataile ofiziala



MOTUL
300 V
COMPETICION

Kabia

TABERNA-ERRETEGIA

Eguneko menua.

Karta (2.000-3.500 pzia. artean).

Okela eta arraina parrilan (enkarguz).
Pintxoak, kazolatxoak eta bokadilloak.

Zubiaurre, 23 BERGARA ☎ 76 23 08

ZUBIETA

elektragintza

MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTETAKO INSTALAZIOAK

Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21

umelaga

JATETXEA

IGANDETAN
ZABALIK!!

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

SEBASTIAN IMAZ



Milagros eta Sebastian. 26 urte lanean. Aranerreka, 1. ☎ 76 32 67

JOSE LUIS LETURIA



Mari Angeles eta Jose Luis. 34 urte lanean. Artekale, 5. ☎ 76 11 30

LUIS MARI REZOLA



Luis Mari eta Margari. 11 urte lanean. Matxiategi, 7. ☎ 76 17 63

IGARZA



Alicia eta Jabier. 23 urte lanean. Irizar, 3. ☎ 76 14 12

Bedelkarreko harategiak



Herritarren zerbitzura!!

JOSE MANUEL ZURUTUZA



Jose Manuel. 10 urte Arrasaten eta 20 Bergaran. Urteaga, 9. ☎ 76 08 68

LETURIA HARATEGIA



Amaia eta Jon Mirena. 1924an sortua. San Pedro, 24. ☎ 76 12 23

LAZPIUR



Jabier eta Maritxu. Harategiak 82 urte ditu. Komenio, 2. ☎ 76 10 72

URCELAY HARATEGIA



Pello eta Arantxa. 4 urte lanean. Ibargai, 7. ☎ 76 00 45

MECA ARRASATE



**Aurtengo udan MECAn
beste hiru arrazoï ematen
dizkizugu kotxea erosteko:**

- 1. Lehenengo hiru kuoten finantziazioa DOAN.**
- 2. TELEFONO MUGIKORRA** oparituko dizugu.
- 3. Eta gainera MALETA-JOKO** dotore hau ere zurea izan daiteke.

* Maleta-jokoa uztailaren lehenengo astean zozketatuko da Renault ibilgailu berriren baten erosleen artean.

* Eskaintza honek 96-6-30era arte izango du balioa.

